

2001-04-28
aurkibidea

EUSKAL HERRIA 16
'Ardi Beltza' ixteko berria

Baltasar Garzon epaileak *Ardi Beltza* ixteko asmoa duela jakinarazi die al-dizkariko arduradunei. Aldeei iritzia eskatuko die orain.

EUSKAL HERRIA 17
Euskarazko eskola liburuaren itzulpena

Nafarroako Gobernuak diru laguntzak onartu ditu euskarazko eskola liburuak gaztelaniara itzultzeko. Datoren ikasturterako prest nahi ditu Gobernuak.

NAZIOARTEKOA 27
Indigenen ezetza

Mexikoko Kongresu Nazional Indigenak baztertu egin du Senatuak COCOPARI egindako aldaketa. COCOPAREN proposamena onartzeko eskatu dute zenbait intelektualek eta Rigoberta Menchuk.

GAIK 42
Tito, espaziora



Dennis Tito EEB-Betako diruduna gaur abiatuko da espaziora, *Alfa* estaziora. Izarren artera joango den lehen turista da.

GAIK 43
Badiola, 'behi ero'-ez mintzo

Juan Jose Badiola entzefalopatia espongiforme igorgarrietan adituarekin hitz egin du EGUNKARIK, gaixotasun horri buruz.

KULTURA 46
Euskal Herria Zuzenean

Ekainaren 29tik uztailaren lehenera egingo da Euskal Herria Zuzenean musika jaialdia, Sohatiako eremuan.

Egunkaria 3.226. zenbakia

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai

Kontseilari Ordezkarria: Iñaki Uribe

Zuzendaria: Martxelo Otamendi

Gerentea: Mikel Sorozabal

Publizitatea: Idoia Sanz

Egoitza Nagusia: Gudariaren etorbidea, z/g 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com

Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com

Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72564 E. Lege Gordailua. SS 800/90 I ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENA

ORDEZKARITZAK - Araba: San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965

Nafarroa: Irabix Monasterioa, 45-13. esk. (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178073-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686

Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114

Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pannecau 14, 1 503 Posta
kubxatila, 64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511

martintxo



hizpideak

Astero bi langile hilda

Aurtengo lehenengo hiru hiruhilekoan 35.879 lan istripu izan dira Hego Euskal Herrian; dagoeneko 35 langile hil dira, eta horrek esan nahi du aste bakoitzean bi langile hiltzen direla batez beste. Datu izugarriak dira horiek, are gehiago, lan istripuen kopuruak gora egin duela ikusita: iazko datuekin alderatuta, %7 istripu gehiago izan dira orain artean. Egoera hori salatzeko mobilizatu ziren atzo sindikatuak Hego Euskal Herrian; ordubeteko lanuzteak eta protestaldiak deitu zituzten ELA, LAB, ESK eta EILASEK alde batetik, eta CCOO, UGT eta USOK bestetik, eta erantzuna zabala izan zen. Ezbeharren arrazoiak enpleguaren prekarizazioa eta segurtasun araudiaren ez betetzea direla diote sindikatuak, eta azterketa horri heltzeko aitzakiarik ez dago.

Mexikoko indigenak haserre Senatuaren erabakiagatik

CNI Kongresu Nazional Indigenak baztertu egin du Mexikoko Senatuak COCOPA Adiskidetze eta Baketzerako Batzordearen proposamenari egindako aldaketa. Erakunde indigenaren arabera, Senatuak azkenean onartutako testuak ez du jatorrizko proposamenaren mamia errespetatu, lurralde autonomiarako eskubidea ezabatzen baitie herri indigenei, eta kolektibo hori eskubide baten subjektu publikoa izatea zintzilik uzten baitu. CNIn ustez, «gerra probokazioa» da Senatuaren ekimena, ez dielako komunitate indigenen beharrei erantzuten. Mexikoko zenbait akademikok eta ikerlarik ere COCOPA legea bere horretan onartzeko eskatu dute.



Lan osasunaren alde, Bizkaiko Diputazioaren aurrean.



Portland eta Bartzelona, finaleko joaneko partidaren.

Maiatza Dantzan jaialdia ez egiteak kezka piztu du

Dantzaren Nazioarteko Egunaren atarian, kezka piztu du aurten Maiatza Dantzan jaialdirik ez dela egingo jakiteak. Victoria Eugenia antzokia obretan dela eta, jakinekoa zen aurten ez zela antzoki horretan egingo Maiatza Dantzaneko ekitaldirik, baina Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du, oraingoz behintzat, alternatibarik aurkeztu. Maiatza Dantzan-i eman ohi zion laguntza urte osoan zehar dantza emanaldiak antolatzeko erabiliko duela adierazi du Aldundiak, baina Gipuzkoako Dantza Elkarteak kideek ez dakite zehazki zer emanaldi izango diren horiek. Argi dutena da ez dutela Maiatza Dantzan-en hutsunea beteko.

Portlanden aukera

Europako Errekopa eta Superkopa irabazi zituen iaz, bigarren partaidetza du Europako lehiaketarik garrantzitsuan, Europako Kopan, eta finalean da Portland San Antonio. Finalean da, eta eskura du txapela. Eskura ez, sei goletara. Hori da joanekoan Iruñean lortutako errenta, eta nahikoa izango ote den edo ez zalantza, Palau Blaugrana beldurgarrian argituko da gaur (18:00, La 2). Ez da Bartzelonak horrelako egoera bati buelta ematen dion aurreneko aldia, baina nondik edo handik euren aukera baliatu behar dute nafarrek. Ez da hasiberriz osatutako taldea. Horrelako pasadizoetan zaildutako jendea badute, eta era horretako aukerarik gutxitan izango dute berriro. Lehendik handi dena, handiago bihurtu liteke gaur.